

## Jessicaren itzalaren inguruko eztabaidarako galderak.

Jessica Francisen ondoan esertzen denean, ikastetxeko jolastokiko jarlekuan, atsedenaldirian, mutikoa zur eta lur geratu da neskak hilda dagoela eta mamua dela esan dionean. Baina neska bera ere harri eta zur dago, Francis delako, hil zenetik, bera ikusteko gai den pertsona bakarra.

Berehala, Francis eta Jessica lagun minak egiten dira, eta inoiz ez bezala gozatuko dute bizitzaz. Alabaina, Jessica ikusteko gai diren beste bi gazte ezagutzen dituztenean, saihestu ezinezko galderak azaleratuko dira: Zer dute denek amankomunean? Eta, zerikusia ote du Jessica mamua izatearekin?

1. Bai Francis, bai Andi, bai Ronland sinetsita daude badela desberdin egiten dituen zerbait. Zein dira gainerakoen artean nabarmentzea eragiten duten berezitasun indibidual horiek? Nola bizi dute hori?
2. Zergatik diote Francisek eta Andik inbidia elkarri?
3. Francisek aipatzen du Angelak eta Denisek badutela halako ahalmen berezi bat, auskalo nondik jaso, eskolan kasu egitea zeinek merezi duen eta zeinek ez erabakitzeke. Zergatik uste duzu egiten dietela kasu besteek? Zerbait egin al daiteke besteengan horrelako eragina duten pertsonak aldatzeko?
4. Zergatik dago Jessica Lurrean harrapatua?
5. Francisek uste du Jessicaren adiskidetasunak zulo sakonetik ateratzen lagundu diola. Nola lagundu dizute lagunek bolada txarretan? Eztabaidatu.
6. Eskolak oso serio hartu zuen eskola-jazarpenaren gaia Lornarena gertatu zenez geroztik. Nola jokutzen du zure eskolak bullyingaren aurrean? Zer iradokiko zenioke zure eskolari?
7. Nola sentitzen dira antzerki taldeko kideak beren berezitasun indibiduali dagokienez? Zertan desberdintzen da hori Francisek, Andik eta Rolandek duten ikuspegitik?

8. Zertan aldatu dira Francis, Andi eta Roland udan zehar?
9. Roland eta Francis, biak ala biak konturatzen dira ez zaiela axola besteek zer pentsatzen duten. Zerk lagundu die ondorio horretara iristen? Gai izango zinateke besteek zutaz pentsatzen dutena bazter uzteko?
10. Francisek gutunetan idazten du: “zeinen azkar aldatzen ahal den bizitza, nola une batean ezinezkoa dirudiena, itxaropenez eta aukeraz betea ikusten den gero”. Egia dela uste al duzu? Azaldu zergatik.